

Txostena

Informe

**Arabako Foru Alorreko
Lan Bereziak**

**Trabajos Especiales del
Área Foral de Álava**

1997



**Herrn Kontuen
Euskal Epaitegia**

**Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas**



Herri Kontzeilua
Euzko Legebiltzaria
Euzko Foruaren
Bilgintza Nagusia

Arabako Foru Alorreko Lan Bereziak

Trabajos Especiales del Área Foral de Álava

1997

Vitoria/Gasteiz, 1999ko apirilaren 22an
Vitoria/Gasteiz, a 22 de abril de 1999



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA	1
I. Opor fiskalak	2
II. Gorbeia Patrokatua	5
III. Mendi Nekazaritzako Elkarteak	11
III.1 Añanako Mendi Nekazaritzako Elkarteak	12
III.2 Izki Mendi Nekazaritza Elkarteak	14
IV. Gokai, SL Gizarte ongizaterako Foru Erakundeak emandako dirulaguntzak	18
INTRODUCCIÓN	22
I. Vacaciones fiscales	23
II. Patronato del Gorbeia	26
III. Asociaciones de Agricultura de Montaña	32
III.1 Asociación de Agricultura de Montaña de Añana	33
III.2 Asociación de Agricultura de Montaña Izki	35
IV. Gokai, SL subvenciones concedidas por el Instituto Foral de Bienestar Social	39



SARRERA

HKEEK 1998rako Lan Plangintzan hainbat lan berezi barne hartu ditu, Arabako Batzar Nagusiek hala eskatuta. Hauetako hainbat lan Arabako Lurralde Historikoaren 1997ko Kontu Orokorraren gaineko fiskalizazioan kokatzen dira eta honenbestez, horietatik eskuratu diren ondorioak fiskalizazio txostenaren ataletan sartu dira. Hona hemen lan horien zerrenda:

- Arabako Lurralde Historikoaren Ondarearen gaineko kudeaketa.
- Etixerako Laguntza Zerbitzua (ELZ), Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen baitakoa.
- Araba Garapen Agentzia, SA (aurrez Prinia, SA).
- Naturgolf, SA (aurrez Tourmontana, SA).

Eskatutako gainerako lan bereziak, txosten honetan aztergai izango ditugunak, honako hauek dira:

- I. Arabako Foru Diputazioak garatutako dirulaguntza eta kontrol programak "opor fiskalak" izenez ezagutzen direnak.
- II. Gorbeia Patronatua.
- III. Mendi-Nekazaritzako Elkarteak
 - III.1.- Añanako Mendi-Nekazaritza Elkartea.
 - III.2.- Izki, Arabako Mendi-Nekazaritza Elkartea.
- IV. GOKAI, SL, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako dirulaguntzak.



I. OPOR FISKALAK

AURRETIKOAK ETA HEDADURA

1993ko uztailaren 5ean Arabako Batzar Nagusiek 18/93 Foru Araua oniritzi zuten, uztailaren 5ekoa, Inbertsioa Bizkartu eta Jarduera Ekonomikoa Bultzatzeko Premiazko Neurri Fiskalei buruzkoa. Horien artean, kale hizkeran, "opor fiskalak" deiturikoak barne hartzen dira.

"Opor fiskalak" Baltzuen gaineko Zerga ordaintzetik 10 urtetarako salbuesten ditu, besteak beste, ondoko baldintzak betetzen dituzten entitateak:

- Sortze berriko baltzuak.
- Jardunbide berria aurrez ez gauzatu izana beste izen batekin.
- Gutxieneko inbertsioa 80 milioi pezetakoa.
- Gutxieneko 20 milioi pezetako kapitalarekin sortzea.
- Baltzua sortzen denetik aurrera, sei hilabeteko epean gutxienez 10 lanpostu sortzea. Gerora, Ogasun Zuzendaritzaren Zirkular bitartez agindu zen, denbora jardunbideari hasiera ematen zitzaionetik aurrera kontatzeko eta ez sortu zen unetik.
- Sorrera data, 1993ko uztailaren 17 eta 1994ko abenduaren 31 bitartean.
- Ez daitezela gardentasun fiskalaren araubidera bildutako baltzuak izan.
- Ez daitezela eraldaketa, fusio, banaketa edo aktiboen ekarpen bidezko eragiketa baten ondorioz sortuak izan.

Salbuespenak ez ditu hartzen onibar kapitalaren etekinak, ezta ondare gehikuntzak ere, %25eko tipo zergagarria ordaintzen baitute. Egoera honek, zenbaitetan, zerga honen kontzeptuan kuotak ordaintzea eragiten du, baita eguneroko jarduera ekonomikoan galerak izanda ere.

Salbuesteko prozedurak Enpresaritzaren Jarduera Plan (EJP) bat aurkezteko eskatzen zuen, gutxienez 5 urteko aldirako; horren edukia urtarrilaren 11ko 1/1994 FDK jasotzen zuen (Foru Arauaren garapen arauzkoa).

18/1993 Foru Araua epailaritzan aurkatua dute Estatuko Administrazioak eta Errioxako Autonomia Erkidegoak. Azken kasu honetan, errekurtsogileak Auzitegi Gorenaren aurrean baliogabetze eskea aurkeztu du, izan ere, Euskal herriko Auzitegi Nagusiak ez baitu onartu errekurtsogileak duen izaeragatik, autonomia erkidego izatekoa, alegia. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak beste errekurtsioari dagokionez, Europako Elkarleen Auzitegiaren aurrean, Luxenburgoko Auzitegian, auzibide aurreko arazoa aurkeztu du, elkarteetako arauak hausteari dagokionez.

Lanaren aztergaia salbuespena eman edo ukatzeko prozedura aztertzeraz eta hautatutako laginen bitartez kostu fiskalaren kalkulua egiaztatzeraz mugatu da. Honez gainera, legezko neurri honen ezaugarriak azaldu dira, Arabako ekonomian izan duen eragina neurtuz.

ANALISIA ETA ONDORIOAK

39 eskabide aurkeztu ziren eta horietatik 7ri uko egin zitzairen. Neurri hauetara bildutako 32 enpresa hauei dagokienez, 1996. urtealdi amaieran gauzatutako inbertsioa eta sortutako enplegua ezezik, AFDri 1993tik 1996ra bitarteko urtealdi fisikaletan eragindako kostua eskuratu dugu. Inbertsio nagusiena aeronabeak eraikitzeko alorrarekin lotutako enpresa batek egindakoa da; izan ere, 17.621 milioi pezetako inbertsioa aurreikusi du eta 237 enplegu zuzen.

ENPRESA BAKOITZARENTZAT AURREIKUSITAKO INBERTSIOA	ERAKUN. KOPURUA	EJPREN ARAB. AURREIK. INBER.	96/12/31N GAUZAT. INBER.	EJPREN ARAB. ENPLEGU KOP.	Milioi pta.	
					96/12/31N ENPLE. KOP.	KOSTU FISKALA
80-100 milioi bitart.	4	357	428	57	62	59
101-300 milioi bitart.	11	2.193	1.967	221	174	58
301-800 milioi bitart.	8	3.929	5.610	342	392	153
801-1000 milioi bitart.	6	5.254	4.694	238	93	452
1001-1500 milioi bitart.	2	2.612	2.583	93	80	(4)
1500 milioi baino gehiago	1	17.621	3.187	237	187	0
GUZTIRA	32	31.966	18.469	1.188	988	718

Aurreko taulan ikusi den legez, 1996ko abenduaren 3in ez dira inbertsio kopuruen gaineko aurreikuspenak bete, batez ere egitasmo garrantzitsuenetan. Enplegua sortzeari dagokionez, aurreikusitakoaren %83 bete da. Nolanahi ere, bete dira araudiak inbertsio eta enpleguarekin loturik eskatzen dituen gutxienekoak.

Enpresek 1994tik 1997ra bitarteko aurrekontu urtealdietan eskuratutako zerga aurrezkiek 718 milioi pezetakoa izan da (Baltzuen gaineko Zergaren aitortpena aurkezten da eta horren sarrera AFDn hurrengo urtealdian kontuataratzen da).

Kostu fiskalari dagokionez, aipatzekoa da ez dagoela berdina banatua; izan ere, egiaztatu dugu 975 milioi pezeta inbertitu eta 30 lanpostu sortu dituen enpresa batek 454 milioi pezetako zerga aurrezkiak eskuratu dituela aipatutako lau urtealdi fisikaletan; halabaina, inbertsio bolumen handien eta enplegua gehien sortu duen enpresan, horren kostua ia hutsekoa da. Edonola ere, eskuratutako informazioarekin egiaztatzen da legezko neurri honek nabarmen goranzko joera duela, datozen urtealdietan erakunde hauek, ustez, eskuratutako dituzten emaitza positiboekin kostuak gora egingo baitu.

Emakida prozedura egiaztatzeko salbuetsi ziren 9 entitate hautatu ditugu eta salbuespena ukatu zitzairen beste 2. Azken hauen azterketan ez dugu ezer aipagarririk aurkitu eta lehenengoei dagokienez, hona hemen azaleratutako arau hausteak:

- Entitate bat oker salbuetsi zen, izan ere, arauzko aurreneurriak agintzen baitu sortzen den entitatea ez dela banaketa baten edo aktiboak ekartzeko eragiketa baten ondorio izango eta kasu honetan, ekarpena entitatea sortu zen egun berean gauzatu zen, kapital zabalketa baten bitartez.
- Beste entitate bat 500.000 pta.rekin soilik sortu zen, nahiz eta 4 hilabeteko epean kapitala araudiak agintzen duen 20 milioi pezetako gutxienekora zabaldu zuen.

- Baltzu batek 6 hilabeteko epean enplegua sortzeko baldintza urratu zuen, jarduerari hasiera eman zitzaionetik aurrera kontatuta.
Legehauste hauek egin dituzten hiru erakundeek osotasunean, aztertutako lau urtealdi fiskaletan bi milioi pezeta egiten ez dituzten zerga aurrezkiak eskuratu dituzte.
- Enplegua sortzeko epea zenbatzen hasteko uneari dagokionez, adierazi behar dugu legezko aldaketa hori hasiera batean emandako maila hierarkiko bereko arauen bitartez egin behar zatekeela eta ez Ogasun Zuzendaritzako Zirkular baten bitartez.



II. GORBEIAKO PATRONATUA AURRERAKINAK ETA HEDADURA

Eusko Legebiltzarraren ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Natura Zaintzeari buruzkoak, agintzen du Parke Naturalaren Patronatua organo aholku emale eta laguntzailea dela, Parke Naturalaren organo kudeatzaileari atxikia eta bere egitekoak honako hauek direla: gidaritza planen egitasmoak eta horien berrikuspenak oniritzea, kudeaketazko urteko programak, aurrekontua eta inbertsio eta jardueren urteko programa eta Zuzendari-Zaintzaileak mamitutako jarduera eta emaitzen urteko memoria oniritzea (31. eta 32. atalak).

Honenbestez, Patronatuak ez du fiskalizazio gai den jarduera ekonomikorik gauzatzen eta Araba eta Bizkaiko Foru Diputazioek egiten dute Parke Naturalaren kudeaketa. Horregatik uste dugu, Arabako Batzar Nagusien eskaera Gorbeiaiko Parke Naturalari dagokiola eta honela, segidan, sarrera modura, "Parke Naturala" moldearen oinarritzko kontzeptuak zerrendaratuko ditugu:

- Parke Naturalatzat hartzen da giza ustiaketa eta okupazioak nabarmen eraldatu gabeko area; paisaiaren edertasunak, ekosistemen adierazgarritasunak edo bertako flora, fauna edo egikera geomorfologikoen berezitasunak bereizten duena; toki hauek botere publikoen aldetik lehentasunezko jokabidea eskatzen dute (16/1994 Legearen 14. at.).
- Espazio bat Parke Natural izendatzeko, aurrez inguruko dagokion Baliabide Naturalen Antolaketa Plana mamitu eta onartu behar da. Gorbeiaiko Parke Naturalaren kasuan, 227/1994 eta 228/1994 Dekretuek, hurrencz hurren, Plan hori onartu eta Parkea sortzen dute.
- Behin Parke Natural izendatu delarik, 16/1994 Legeak 27. atalean agintzen du Baliabide Naturalen Antolaketa Plana oniritzen denetik aurrera urtebeteko epean eta horren agintaraudiari jarraiki, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea oniritzeko obligazioa dagoela. Izan ere, Plan hau Parkea kudeatzeko baliabide nagusia da, onartzen denetik aurrera boste urteko epean eta kudeaketarako zuzentarau eta irizpideak biltzen ditu, Baliabide Naturalen Antolaketa Planean zehaztutako arauzko erabakien arabera. Gorbeiaiko Parke Naturalaren kasuan, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea 1997ko abenduaren 26an onartu zen; horrek esan nahi du hiru urteko atzeraldiarekin egin zela.
- Gorbeiaiko Parke Naturalak Araban Cigoitia, Urkabustaiz eta Zuyako udalerriak besarkatzen ditu eta Areatza, Artea, Orozko, Zeanuri eta Zeberio Bizkaian.

Gorbeiaiko Parke Naturalak ez du nortasun juridikorik eta honenbestez, ezta berezko konturik ere, jarduera guztiak Araba eta Bizkaiko Foru Diputazioen aurrekontuetan sartuak baitaude; hori dela eta, lan honen aztergaia, batez ere, bi Diputazioen arteko kudeaketa hitzarmena eta 1997. urtealdiko Jardueren Memoria izango da.

PARKEA KUDEATZEKO HITZARMENA

Gorbeia Parke Naturala sortzen duen 228/1994 Dekretuak agintzen du Araba eta Bizkaiko Diputazioek parkea kudeatuko dutela lankidetzan hitzarmen eta beste formula batzuren arabera; horretarako, hitzarmena euren artean adostu beharko dute eta administrazio hori koordintzateko Plan Zuzentzailean zehaztuko diren arauak jarraitu; azken alderdi hau, ordea, ez da praktikatuko. Gorbeia Parke Naturala kudeatzeko Araba eta Bizkaiko Foru Diputazioen arteko Hitzarmena bi erakundeek 1995eko martxoaren 31n izenpetu zuten; egun berean, Gorbeia Parke Naturala finantzatzeko Akordioa ere izenpetu zen eta bertan zehazten da bi lurraldeentzako amankomunak diren gastuak lurralde bakoitzari dagokion Parke-azaleraren ehunekoaren arabera ordainduko direla: %61 Arabako Foru Diputazioaren kontura eta %39 Bizkaiko Foru Diputazioaren kontura; Diputazio bakoitzak bere lurraldean egindako gastuak (lurralde gastuak) oso-osorik bere konturakoak izango dira.

Hitzarmenak aurreikusten du bi Diputazioek zuzendari-Zaintzaile bat izendatu behar dutela, gerora Arabako Foru Diputazioak izendatuko duena, funtzionalki erakunde honetako Nekazaritza Sailaren menekoa izanik. Hitzarmenak hainbat eskumen aitortzen dizkio, besteak beste, Patronatuari inbertsioen urteko programa formulatu eta proposatzea, programa hori egiteratzea eta jardueren urteko memoriak egitea. Egiteko hauek guztiak interpretatzeko gogoan hartu behar da Parke Naturalaren gastua Diputazioetako aurrekontuetan sartuta dagoela eta horrenbestez, Diputazioen aurrekontuko beste zeinahi gastuak duen aurrekontu eta kontratazio araudi berari meneratua. Zuzendari-Zaintzaileak, batez ere, ikuskaritza lanak egiten ditu, teknika eta kudeaketaren ikuspuntutik.

Hitzarmenak argi utzi behar ditu Parkearen kudeaketak dituen mugak, gastu eta sarrerak Foru Diputazioen aurrekontuetan sartuak baitaude.

Ondotik Hitzarmenaren alderdi nagusienak azpimarratuko ditugu:

- Hitzarmenak dio Arabako Foru Diputazioak bertako Aurrekontu orokorretan Parke Naturala izeneko programa sortuko duela eta bertan Parke Naturalari atxikitako Arabako Foru Diputazioak langileen gastuak eta inbertsio, jarduera, azterlan eta ikerketen urteko programa egiteratzeetik eratorritako gastuak jasoko direla. Ez da ezer esaten Bizkaiko Foru Diputazioak egin behar duenaz, ezta Bizkaiko lurralde gastuen tratamenduaz ere.

Gorbeia Parke Naturalari atxikitako gastuaren aurrekontu egiterapenaren gaineko jarraipen zuzena egiteko, bai Arabako Foru Diputazioak, bai Bizkaikoak egindako gastu guztia bilduko duten programak sortu behar lituzkete; Gainera, Hitzarmenak zehaztu beharko luke zein gastu mota bildu behar duen Diputazio bakoitzeko programak; honela, bada, Arabak baterako gastu guztia (sarrera modura erregistratzen du Bizkaia gastu horretan duen partaidetza) eta berezko lurralde gastuak biltzen ditu; eta Bizkaia berezko lurralde gastuak eta baterako gastuetatik dagokion atala jaso beharko luke, AFDri egindako transferentzia modura.



- Hitzarmenaren Araubide ekonomikoak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak ekonomikoki Parke Naturalaren jardueren finantzaketan parte hartzeko aukera aurreikusten du eta agintzen du Arabako eta Bizkaiko Foru Diputaziek dagozkion harremanak finkatuko dituztela aipatutako partaidetza eskuratzeko. Bestalde, Hitzarmenaren Printzipio Orokorren atalean agintzen da bi Diputazioek elkartuta, Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmenak izenpetu ahal izango dituztela, helburuak zorrotzasunez bete eta ekintzak garatzeko. Gure lanean azaleratu da Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Diputazioaren artean hitzarmenak daudela 1996 eta 1997rako, Hitzarmen horietan Bizkaiko Foru Diputazioak parte hartzen ez duela. Bestalde, Parkeko Zuzendari-Zaintzaileak ez daki erakunde honek Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmenak izenpetzerik izan duen.

Finantzaketaren alorreko jarduera orok baterakoa izan behar duela uste dugu eta, edonola ere, Parkeko Zuzendari-Zaintzaileak Parkeari buruzko informazio guztia kontrolpetu beharko luke horren gainean hitzartzen diren akordioen bitartez, bai gastuari, bai sarrerari dagokionez.

GORBEIAKO PARKE NATURALAREN 1997KO JARDUEREN MEMORIA

Parkearen Zuzendari-Zaintzaileak urtealdiko jarduera eta emaitzen urteko memoria mamitu behar du, Parkea kudeatzeko Hitzarmenak agintzen duen moduan. Dokumentu horretan aurkeztutako informazioa honako hau da:

	Mili pta.
ATALBURUA	AURREKONTUA
Langile gastuak.....	8
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak.....	113
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....	3
Inbertsio errealak.....	139
Kapital transferentzia eta dirulaguntzak.....	51
GUZTIRA	314

Jardueren Memorian ez da bereizten baterako gastuen informazioa, Arabako eta Bizkaiko lurraldekoen artean. Arabako Foru Diputazioaren Nekazaritza Sailak emandako informazioa oinarri hartuta, sailkapen hori eta kontzeptuen araberako xehekapena honako hau izango litzateke:



	Miliak pta.		
	BATERAKO	ARABAKO	BIZKAIKO.
AZALPENEA	GASTUA	LURRALDE G.	LURRALDE G.
Parketxea Sarria eta Areatzan.....	-	48	14
Orozkoen artzaiaren museo etnografikoaren lanak.....	-	-	32
Sarbideen egokitzapen eta hobekuntza.....	-	26	7
Basogintza eta birsorkuntza lanak.....	-	12	33
Atsedenekuak mantentzea.....	-	8	3
Pista eta bideskak mantendu eta zaintzea.....	-	6	61
Larre-tokiak hobetzea.....	-	6	-
Zaingoa.....	-	7	11
Lursailen erosketa.....	-	-	6
Langile gastuak.....	8	-	-
Azterlan eta lan teknikoak.....	6	-	6
Dibulgazio materiala egitea.....	3	-	-
Seinaleztaketa.....	5	-	-
Kartografia.....	3	-	-
Bestelako txikiak.....	2	-	1
GUZTIRA	27	113	174

Urteko Memorian aurkeztutako datuen arabera, Arabako Foru Diputazioaren aurrekontuan baterako gastuen eta Arabako lurraldeko gastuen kontularitzako erregistroa ondoko era honetara gauzatu da:

	Miliak pta.
PARKE NATURALA PROGRAMAREN GASTUAK	109
Gehi:	
Programan jaso gabeko langile gastuak.....	8
Parkeko Gastuak, AFDren beste Sail batzuk gauzatu eta programan jaso gabekoak.....	39
Erabilitako faseko gastuak, Memorian 97ko gastu modura hartuak.....	28
Ken:	
1997an sortutako gastuak, 1996ko bertaketetatik eratorritakoak, 1996ko Memorian jasoak.....	(40)
Mendietan egindako lanak, Sailaren arabera Parkean ez dagozkionak.....	(4)
ARABAKO BATERAKO ETA LURRALDEKO GASTUAK, JARDUEREN MEMORIAREN ARABERA	140

Jardueren memoria aurkeztutako informazioari eta Arabako Foru Diputazioaren aurrekontuan erregistratutako gastuari dagokionez, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- Memorian gastua jasotzen da eskueran izan edo hitzartzen den unean eta ez gauzatzen den unean.

Memoriak egiaz gauzaturako gastua erakutsi behar du, gauzatzeko dauden konpromezuen berri eman ere eman dezakeelarik.

- Parke Naturala programaz kanpo erregistratutako Parkeari buruzko gastuak daude.

Parkean egindako gastuaren kontrol egokiari dagokionez, gastua zein Sailek egiten duen alde batera utzita, gastu guztia Parke Naturala programan erregistratu behar da, kudeaketa hitzarmenak agintzen duen legez.

- Ez dago artxibo banakakotu bat, gero Memoria egiteko erabiltzen den dokumentazioa jasoko duena. Gogoan hartuta gastu guztiak ez direla Parke Naturala programan erregistratzen, litekeena da programaz kanpo egindako gastuak egotea eta Memoria mamitzerakoan gogoan hartu ez direnak. Bestetik, Bizkaiko Lurralde gastuei dagokienez, Zuzendari-Zaintzaileak egindako gastuaren zerrenda jasotzen du, Memoria gauzatu ahal izateko.

Parkean egindako jarduera guztien gaineko kontrol banakakotua gauzatu behar litzatekeela uste dugu, kontularitzako dokumentazio guztia agirien euskarriekin bilduko duena; hartara, Zuzendari-Zaintzaileak zeinahi unetan Parkeari atxikitako gastuaren aurrekontu egiterapenari dagokion informazioa eskueran izatearren, bai baterako gastuak badira, bai Bizkaia eta Arabako lurralde gastuak badira ere.

- Jardueren Memoriak ez du Parke naturalarekin lotutako sarreraren berri ematen. Arabako Foru Diputazioaren aurrekontuan 1997.eko urtealdian erregistratu diren sarrerak honako hauek dira:
 - Bizkaiko Foru Diputazioaren ekarpena, Parkearen baterako gastuetan duen partaidetzagatik; gastu horiek Arabako Foru Diputaziotik kudeatzen dira eta oso-oso erakunde honetako gastuen aurrekontuan erregistratzen. Bi Diputazioen artean izenpetutako Finantzaketa Akordioak agintzen du baterako gastuaren %39 Bizkaiari dagokiola eta Lurralde honek 12 milioi pezeta ematen ditu; kopuru hau aurrekontuaren gainean kalkulaturakoa da eta ez da zuzendu memoriaren arabera egiaz egiteratutako baterako gastuarekin. Aldea ez da adierazgarria.
 - Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saitetik jasotako sarrerak, 13 milioi pezetakoak; sarrera horiek Eusko Jaurlaritzako Sail horrek eta Arabako Foru Diputazioak Parke Naturala finantzatzeko izenpetutako lankidetzarako marko hitzarmenaren ondorio dira, 1996ko inbertsioen kontzeptupekoak. Sarreraren aitortpena kobratzen den unean egiten da, inbertsioa egin izana justifikatu ondoren.
 - 1997ko uztailaren 7an Eusko Jaurlaritzaren Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak erabaki zuen "Gorbeiako Parke Naturalean jarduera eta inbertsioak" egitasmoari %50eko laguntza ematea; egitasmo hori Arabako Foru Diputazioak aurkeztu zuen 120 milioi pezetako aurrekontuarekin. Laguntza horretatik %50 Europako Egituraketazko Fondoek kargura finantzatu da (5b programa operatiboa) eta gainerakoa, Eusko



Jaurlaritzaren Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren kargura. 1997. urtealdian 32 milioi pezetako gastuak justifikatu ziren eta honenbestez, 16 milioi pezetako sarrera jaso zen.

Jardueren Memoriak Parke Naturalean egindako gastuarekiko eskuratu diren sarreraren berri eman beharko luke; baita onartutako eta justifikatu eta kobratzeko dauden dirulaguntzena ere.



III. MENDI NEKAZARITZAKO ELKARTEAK

AURRETIKOAK ETA HEDADURA

Eusko Jaurlaritzaren 394/1985 Dekretuak Euskal Herriko Mendi Nekazaritzako guneak eskualdeen arabera bilduz bereizten ditu. Arabako ibarren eskualdetik eta Arabako Mendi eskualdetik, hurrenez hurren, Añana eta Izki Mendi Nekazaritzako Elkarteak sortu dira.

Mendi Nekazaritzako Elkarteen helburu nagusia landa inguruko bizi-baldintzak hobetzea da; orobat, nekazari, nekazal-elidaturako industri, sektore nekazal-turistiko eta Toki Administrazioaren arteko lankidetzaz eta partaidetzaz bideratzeko dira, inguruaren bete-beteko garapenerako programak mamitu eta egiteratzean.

Elkarte hauen sorreraren oinarri juridikoa 3/1988 Legea da, Eusko Legebiltzarraren Elkarteci buruzkoa eta zuzenbide pribatuko entitateak dira, nortasun juridiko propioa dutenak; horrek esan nahi du:

- ezargarria den kontabilitatea merkataritzako kontabilitate orokorra dela eta ez, aurrekontuko kontabilitatea, ezta kontabilitate orokor publikoa ere.
- Hitzarmenak edo dirulaguntza-dekretuak hala agintzen badute, ondasun erosketa eta zerbitzuetan Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko 13/1995 Legearen aginduetara meneratzen dira.
- Ez dago legezko agindu berariazkorik langileen kontratazioa publizitate, lehiaketa eta objetibitate printzipioen arabera egin behar dela esaten duenik.

Bazkideak pertsona juridikoak dira: Udala, Administrazio Batzordeak, Nekazarien Enpresaritzak, Kultur elkarteak, e.a. Horien funtzionamendurako oinarriko arauak estatutuetan jasoak daude. Zuzendaritza atalak Batzar Nagusia eta Zuzendaritza Batzordea dira.

Orokortasunez AFDk Elkarte hauei dagokienez emandako dirulaguntzen artean bi motatakoak bereizten ditugu:

- Leherik eta bat, funtzionamendu gastu arruntak ordaintzeko ematen direnak.
- Bestetik, Administrazio Batzordeek mendi nekazaritzarekin loturik euren ondasunetan, bide eta mendietan, egiten dituzten inbertsioen atal bat diruz laguntzeko ematen direnak.

Bere jarduera ekonomiko adierazgarriena dirulaguntza hauen kudeaketa da. Esparru juridikoa Dirulaguntzei buruzko 3/1997 FAn dago finkatua. Foru Diputazioarekin harremanak izateko baliabide naturala Hitzarmena da. Nolanahi ere, 1997an ez da Hitzarmenik izan Añanako Mendi Nekazaritzako Elkartearen eta AFDren artean.

Gure lanaren helburua AFDk Elkarte hauei emandako dirulaguntzen fiskalizazioa izan da. Orobat, elkarte hauen funtzionamendua azaldu nahi izan dugu, duten garrantziagatik, zuzendu edo hobetu daitezkeen alderdiak azaleratuz.



III.1 AÑANAKO MENDI NEKAZARITZAKO ELKARTEA

Arabako Mendi Nekazaritzako eskualdea honako udalerrri hauek osatzen dute: Berantevilla, Koartango, Lantaron, Erribera Goitia, Añana, Valdegovía, Armiñon eta Erribera Beitia (azken bi hauek zati batean baizik ez); eta esparru geografiko hau da Elkartearen jarduera gune. Elkartearen egoitza Lantaronen dago eta 128 kidek osatzen dute.

Azterketaren ondorioz, bereziki azpimarratu behar da Arabako Foru Diputazioaren eta Mendi Nekazaritza Elkartearen arteko Hitzarmerik ez izatea huts handia dela; izan ere, elkarteak ez baitaiteke eratu lankidetzak erakunde modura, Dirulaguntzei buruzko 3/1997 Foru Arauaren 6. atalak agintzen duenaren arabera, eta horrek eragozten dio "AFDren izenean eta kontura" jardun ahal izatea eta, honenbestez, Administrazio Batzordeei ematen zaizkien dirulaguntzen kudeaketara zuzendutako bere egitekoak betetzea. Elkarteak bitarteko huts izan da, AFD eta aipatutako Batzordeen arteko komunikazio bidea ginez.

Ondoko taulan erakunde onuradunek aurrekontu egindako gastu eta obrak azalduko ditugu. Gainera, jaso ditugu AFDren ikuspegi eta erregistroak oinarri hartuta, 1997an egiteratzen diren 1996ko dirulaguntzak, 1997an emandakoak, 1997an egindako gastua eta urtealdi horretako abenduaren 31n egiteratzeko dagoena:

	AURREK.	AFD	Mili pta.	
			GAUZATUT. DIRULAGUN.	GAUZATU GABEA
			1997	97.12.31
1996an emandako dirulaguntzak		DIRULAG.	AFD	AFD
Valderejoko Udaletxe zaharreko lanak	12	11	11	0
Azpiegitura inbertsioak.....	59	37	35	0
Azpitotala	71	48	46	0
1997an emandako dirulaguntzak				
Angostoko azoka	2	1	1	0
Valderejoko P. zaingoaren kontratazioa ...	5	5	5	0
Bestelako funtzionamendu gastuak.....	4	3	3	0
Mendien itxituretarako laguntzak.....	22	17	0	17
Bideak konpontzeko laguntzak	50	28	0	28
Azpitotala	83	54	9	45
GUZTIRA	154	102	55	45

Elkarte honek jasotzen dituen dirulaguntza bakarrak funtzionamendu gastuei, Angostoko Azokari eta Valderejoko Parkearen zaingoari dagozkienak dira. Elkarteak ez ditu jasotzen ezta finantza aldetik kudeatzen ere, gainerako baliabideak, eta horiek Administrazio Batzordeei ordaintzen zaizkie. Horren ondorioz, AFDren barne esparruan urratu egin dira, Administrazio Batzordeei ematen zaizkien dirulaguntzak "Añanako Mendi Nekazaritzaren Elkartearen bitartez" emango direla agintzen duten Foru Aginduak.

Bestalde, berariaz aipatzekoa da zenbateko kontraesana den dirulaguntzak Elkartearen aldera izendun modura azaltzea Foru Diputazioaren Aurrekontuan.



1998ko azaroan urtealdi horretarako lankidetzaz hitzarmena izenpetu da Elkartearen eta Foru Diputazioaren artean.

Hona hemen Administrazio Batzordeei ematen zaizkien dirulaguntzetan azaleratu diren beste irizpen batzuk:

- ALHAAN ez da dirulaguntzen deialdia argitaratzen. Hala ere, Zuzendaritza Batzordearen eta Bazkideen Bilkura Orokorraren agirietan jasota geratu dira bazkideei informazio emateko izapidak eta honenbestez, bazkideak jakitun direla pentsa daiteke. Orobat, jasotako eskabideak hautatzeko irizpideak Zuzendaritza Batzordearen agirietan adieraziak daude, azkenik gauzatuko diren onartutako lanak zeintzu diren jasota utziz.
- Honi dagokionez, pentsa daiteke Batzordean ebatzitako hautaketarako irizpideak behar bezain objetiboak direla, bertako kideek bilera horietan ordezkatuak dauden heinean, onartu egiten baitituzte, nahiz eta ez diren eskabideak atzera botatzeko arrazoiak adierazten. Nolanahi ere, oinarri arauetan jaso behar liratekeen irizpide hauek Diputazioak eman behar zituzkeen.

Lehiaketa eta objetibotasun printzipioen egiaztaketa Diputazioak kontrolatu behar zukeen, ez baia Elkartearen entitate laguntzailatzat hartu.

- 1997. urtealdirako azpiegitura lanetan aurrekontu egindakotik ez da ezer ere egiteratu aldi horretan eta 1998ko azarora arte (lana egin den data), % 14 gauzatu da.

1997. urtealdirako aurrekontuetan diren lanetan egiterapen aldia luzeegia dela uste dugu eta horren erantzukizuna kontratazioa gauzatzen duen atalarena da, Administrazio Batzordeena, alegia.

Elkarteak AFDtik jasotzen dituen dirulaguntzen artean, Valderejoko Parke Naturalaren zaingoari dagokiona dago, Diputazioarekin 1995eko maiatzean izenpetutako berriazko Hitzarmen baten ondorioz. Horretarako, nominan bi pertsona ditu eta Nekazaritza Sailak horren kostua diruz laguntzen du, 1997an guztira 5 milioi pezetakoa izan dena. 1998ko martxoan jarduera hau Naturgolf Foru Baltzu Publikoaren bitartez gauzatzen hasi zen.

1998an Batzar Nagusia ez da 1997ko kontuak oniritzteko bildu.

Batzar Nagusiak entitatearen kontuak legeak aurreikusten dituen epeetan oniritzi behar dituela uste dugu.



Elkartek egiten duen ekintzetako bat, Bigarren Hezkuntza amaitu duten ikasleak Gasteiza garraiatzea da. Jardunbide hau hein batean (566,6) Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du Mendikoi baltzu publikoaren bitartez (LEADER II landa garapenerako elkarte ekimenerako programen baitan). 97/98 ikasturterako diruz lagundutako zenbatekoa 19 milioi pezetakoa izan zen. Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen ez duen kopurua, berriz, Udalen bitartez, gurasoen kuotaren eta elkartearen beraren bitartez finantzatzen da; elkarteak ikasle bakoitzeko %11,3ko proportzioa ematen du, Zuzendaritza Batzordeko bileran hartutako akordio bidez. Zerbitzu hau emateko, elkarteak zuzenean garraiariekin kontratatzen du.

III.2 IZKI MENDI NEKAZARITZA ELKARTEA

Arabako Mendi Nekazaritzaren eskualdea honako udalerri hauek osatzen dute: Bernedo, Kanpezu, Lagran, Arraia-Maeztu, Urizaharra eta Harana udalerriek eta esparru geografiko hau da Elkartearen jardura gune. Elkartearen egoitza Bernedon dago eta 115 kidek osatzen dute.

Dirulaguntzak izapidatzeari dagokionez, oinarritzko araudia AFDk 1997ko ekainaren 11n izenpetutako Lankidetzak Hitzarmenean jaso dago. Hitzarmen honen arabera, Elkarteak erakunde laguntzaile modura eratu zen Dirulaguntzei buruzko 3/1997 Foru Arauaren 6. atalaren eraginez eta horren ondorioz, AFDtik jasotako laguntzen transferentziak kudeatu zituen, gerora horien onuradunei iristaraziz, hau da, eskualdeko Administrazio Batzordeei.

Ondoko taulan erakunde onuradunek aurrekontu egindako gastu eta obrak azalduko ditugu. Gainera, jaso ditugu AFDren ikuspegi eta erregistroak oinarri hartuta, 1997an egiteratzen diren 1996ko dirulaguntzak, 1997an emandakoak, 1997an egindako gastua eta urtealdi horretako abenduaren 31n egiteratzeko dagoena:

	Milioi pta.			
	AURREK. OBRA/GAST.	AFD DIRULAG.	GAUZAT. DIRULAG. 1997 AFD	GAUZATU GABEA 97.12.31 AFD
1996an emandako dirulaguntzak				
Azpiegiturako inbertsioak.....	98	34	34	0
Azpitotala	98	34	34	0
1997an emandako dirulaguntzak				
Funtzionamendu gastuak.....	9	8	8	0
Kultur ekintzak.....	15	3	3	0
Bideetan obrak.....	32	21	3	18
Itxitura eta urasketan obrak.....	22	16	16	0
Berogailua eta fatxadak.....	15	4	4	0
Azpitotala	93	52	34	18
GUZTIRA	191	86	68	18

Administrazio Batzordeak hartzaile diren dirulaguntzei dagokienez, zera azpimarra dezakegu:

- Hitzarmenak agintzen duena gogoan hartuta, ondorendu dezakegu ez dela aurrez aipatutako Foru Arauena finkatutako publizitate printzipioa betetzen, ez baita ALHAAn argitara ematen. Hala eta guztiz ere, Elkartek gauzatu dituen jarduerak ikusita esan daiteke elkartekide guztiek garaiz ezagutzen dituztela dauden laguntzak eta hartara, dirulaguntza eskatzeko aukera izan ohi dutela.
- Lehiaketa eta objetibotasun printzipioei dagokienez, egiaztatu dugu hautaketarako irizpide nagusia Administrazio Batzorde onuradunak diruz lagundu gabeko atalari aurre egiteko fondoak izatea dela; irizpide honi jarraitzea arrazoizkoa da, batik bat, landabideei dagozkien lanetan, izan ere, dirulaguntzak aurrekontuaren %60 baizik ez baitu egiten. Hala eta guztiz ere, ez dago akta bat jasotako eskabideen eta hautatutako eskabideen berri emango duena, jarraitu dituzten irizpide eta arrazoiak azalduko dituen.

Ondorio guztietarako beharrezkoa irizten diogu dirulaguntzen emakidari dagokionez, gauzatutako egintza guztien berri erasota uzteari; horretarako, akta bat egin beharko da jasotako eta atzera botatuko eskabideak eta erabilitako hautaketa irizpideak zehaztuko dituen.

- Orohar, dirulaguntza lerroetan egiaztatu ahal izan dugu emandako dirulaguntzak Hitzarmenak agintzen duenera egokitu direla izaera eta ehunekoei dagokienez. Hitzarmenak finkatzen dituen epeak direla eta, Elkartek onuradunei dirulaguntzak bideratu, ebatzi eta ordaintzeari dagokionez, ez direla zorrotasun handiz gordetzen esan behar dugu eta horrek prozesua atzeratzea eragiten du.

Komenigarria irizten diogu epeak betetzeari, hartara onuradunei dirulaguntzak ordaintzean atzerapen handiegirik ez izateko.

- 1997an aurrekontu egindako lanetatik, urtealdi honetan %58 egiteratu dira ea fiskalizazioa gauzatu zen datan (98ko azaroa), lanen egiterapen maila %90ekoa zen.
- Funtzionamendu gastuetarako emandako dirulaguntzari dagokionez, desfase handia dagoela ikusi da Elkartek AFDri funtzionamendu gastuen agiri justifikagarriak igortzen dizkionetik AFDk gastu horiek ordaindu eta Elkartearen funtzionamendurako beharrezko diren aurrerakinak ematen dizkion arte. Egoera honek Elkartek fondoak eskueran izatea izugarri atzeratzen du.



Alderdi hau hitzarmenean guztiz finkatua uztea komeni da, hartara, Elkartean likidezia arazorik gerta ez dadin.

- Kultur ekintzen jardueretarako badira hainbat oinarri arau Elkartek inguruko kultur elkarteen eskueran uzten dituztenak, horietarako irispidea izan dezaten. Izki Mendi Nekazaritza Elkartek Kultur Elkarteei ordainketak egiteko, hauek aurrez ordainagiriak aurkeztu behar dituzte eta Izki Elkarteko kideek ikuskatu.
- Fatxada eta berogailuetan gauzatu beharreko jarduerentzako dirulaguntzak gauzatu gabe utzi ziren 1995 eta 1996ko jardura programetatik datoz. Lurralde, Etxebizitza eta Ingurugiroaren Antolakuntzarako Sailak alor honetan duen eskumenari buruz AFDk hainbat oharpen egin zituen; horiek direla eta, bazkideen Bilkura Orokorrean erabaki zen, eta halaxe izenpetu ere AFDrekiko Hitzarmenean, jardura horiek 1997.eko aldian gauzatea, baina hurrengo urteetarako adierazitako Sailaren bitartez bideratzea. Jardura hauek gauzatzeko finkatutako betekizunak, 1996. urtealdiko jardueren memorian daude jasoa eta horien edukia bazkidei guztiei banatu zaizkie.

Merezi du aipatzea Izki Mendi Nekazaritza Elkartea 5B eta LEADER II Programa Operatiboak garatzeko Arabako Mendi Eskualdearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko solaskide izendatu dela; programa horien helburua inguruaren berrindartze ekonomikoa eta bizi mailaren hobekuntza bideratzea da, biztanlegoaren emigrazioa geldiaraztearren. Programa hauei dagokienez, Elkartek eskatzen diren dirulaguntzen dokumentazioa baizik ez du kudeatzen. Fondoien transferentzia ez da Elkartearen eskuetatik pasatzen.

Azkenik, beharrezkoa da beste egoera batzuk azpimarratzea, zuzenean dirulaguntzekin loturik ez badaude ere, huts adierazgarri direnak:

- Elkartek aurkeztutako kontabilitateak huts larriak ditu (irekieraren oharpen kontablea falta da) eta honenbestez, ez du inola ere finantza eta ondare egoera erakusten.

Elkartek kontularitza prozedura zuzenak ezarri behar ditu.

- Aktak irakurrita ondorentzen da Elkartek VAPSA eta BIOMENDI baltzuen kapital sozialean partaidetza duela, hurrenez hurren, 10 eta 22,5 milioi pezetakoa. Elkartean ez dago jabetza hori egiaztatuko duen agiri juridikorik, ezta egoera honen kontularitza islarik ere. Batzordean hartutako akordioetatik eratoritzen da partaidetza horiek balio sinbolikoarekin saltzeko asmoa dagoela, baina fiskalizazioa egin den datan gauzatzeko zegoen.



Partaidetutako merkataritza entitateen gaineko kudeaketak zorrotza izan behar du.

Era honetako hutsak egiten direla ikusita Diputazioak kontrol zorrotzagoa gauzatu beharko luke.

Diputazioak hitzarmenetan edo dirulaguntzei buruzko Foru Aginduetan kontrolbideak barne hartu behar ditu urteko kontuak egin eta aurkezteari dagokionez eta Mendi Nekazaritza Elkarteak merkataritza entitateetan partaidetza izateari dagokionez.

IV. GOKAI, SL GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Gokai, SL Baltzua 1994ko martxoaren 4an osatu zen. Izaera pribatuko merkataritza baltzu honen xede soziala enplegua sustatzea da, era guzietako jardunbidea duten enpresetan elbarriei lana emanez.

Enplegurako Zentro Berezi (EZB) modura dago kalifikatua. Enplegurako Zentro Berezien helburua minusbalioetasunen bat duten pertsonen ordaindutako enplegua ziurtatzea da; honako hau, elbarriak ohizko lan erregimenera biltzeko modua da. Zentro hauen plantila %70ean langile elbarriek osatu behar dute.

Bere baltzu helburua betetzeko entitateak hainbat jarduera gauzatzen ditu, batzuk nagusiak eta beste batzuk prestalanezko eta osagarriak; jarduera guzti hauek entitate publikoen dirulaguntza jasotzen dute. Gainera, entitateak enpresetatik sarrerak jasotzen ditu, Gokai erakundeak berak enplegatutako langile elbarrien bitartez zerbitzua emateagatik. Jarduera hauen deskribapena programaren arabeko sailkapenaren bitartez egiten dugu eta programa horiek sarrera eta gastuen kontularitzako garapena dute:

1.- **LANGAI.** Langai Egailan SA, euskal baltzu publikoaren zerbitzua da, enplegu eskaria eta lan eskaintza eskuratu eta zerrendaratzen duena. GOKAI zentro laguntzailea da eta Langaiak hiru eta bost mila pezeta ordaintzen dizkio, hurrenez hurren, lan eskari eta eskaintza bakoitzagatik. Datu base honek lan eskatzaile elbarrituak ezagutu eta ekartzeko bidea ematen dio eta dauden lan eskaintzak euren beharrianetara egokitzekoa. 1996ko irailetik 1997ko abendura 3 milioi pezeta eskuratu ditu.

2.- **PRESTAKUNTZA.** Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eta GOKAIren arteko hitzarmenaren ondorioz dirulaguntza izaerako laguntza ematen da lanerako prestakuntza jarduerak egiteko (multimedia aplikazioen eta Interneten zerbitzu emateari buruzko ikastaro bat eta beste bat mikrouhin labeentzako tenporizadoreei buruzkoa), 12 eta 40 ikasleentzako eta 290 eta 168 ordutakoa, hurrenez hurren. Ikastaro hauentzako 5 milioi pezetako dirulaguntza eman da.

3.- **HORIZON.** Elbarriak dituzten langileak lan merkatuan sartzeko ekintzak burutzea. Programa hau GOFEk diruz lagundu du 13 milioi pezetako zenbatekoarekin. Nolabait esan daiteke programa honen xedeak Langai eta prestakuntza programetan egiten diren jarduerak ere besarkatzen dituela, hauek ere elbarriak laneratzeko prestakuntza programak baitira eta baita Kudeaketa programan egiten diren jarduerak ere. Programa honen ezaugarri adierazgarriena enpresek zuzenean langile elbarriak kontratatzea da, Gokai egindako prestakuntza, trebakuntza edo bitartekotza ekintzen ondorioz.

4.- **KUDEAKETA.** Bi jarduera mota besarkatzen ditu:

- **Elbarrientzako lanpostuak lortzea enklabe bitartez.**

Enplegurako Zentro Berezi batek, GOKAiek berak edo beste EZB batek, langile elbarriak kontratatzen ditu eta hauek zerbitzua enpresa batean ematen dute. Azken kasu honetan kostuak eta sarrerak ez dira GOKAren islatzen. Kontratazio hauek proba izaera izan ohi dute eta zerbitzu hartzaileari eragingo liokeen kostu berean egiten dira.

GOKAiek uste du kontratazio hauek GOFEn dirulaguntzaren xedea betetzen dutela.

- **Administrazio, lan eta kontularitzari buruzko aholkularitza zerbitzuak ematea, elbarriekin lotutako enpresa edo erakundeei (EZB, Elkarteak, e.a.).**

Gainera, GOKAiek ondoko laguntza publikoak jasotzen ditu:

- **Gizarte Segurantzaren kuotetan hobariak.** Langile elbarria kontratatzeagatik kuotaren %100. 1997ko aldian saritutako kopurua guztira, 4 milioi pta.koa izan zen.
- **Europako Gizarte Fondoak emandako dirulaguntza.** 1994ko martxoaren 22ko Aginduari jarraiki; izan ere, ezargarria den lanbide arteko gutxienezko soldataren %50eko dirulaguntza finkatzen du Enplegurako Zentro Berezien aldera, elbarri bakoitzak betetzen duen lanpostu bakoitzagatik. 1997. urtealdian jasotako guztizko zenbatekoa 3 milioi pezetakoa izan zen.

Baltzuak Langai, Prestakuntza, Horizon eta Kudeaketa programek egiten duten jarduera edo programa bakoitzagatik sarrerak (gastuak ere bai) banatzen ditu, programa bakoitzari dagozkion sarrera eta gastuak egotziz eta programa bakoitzarentzat urteko kontuak eginez. Ondotik, kontu horien laburpena azalduko dugu:

	Milioi pta.					
SARRERA ETA GASTUAK	LANGAI	PRESTAKUNTZA	HORIZON	KUDEAKETA	GUZTIRA	
Dirulaguntzak	4	5	16	3	28	
Bestelako sarrerak	-	-	-	8	8	
Hornikuntza eta Amortiz.....	-	-	(1)	-	(1)	
Langile gastuak.....	(3)	(1)	(13)	(9)	(26)	
Bestelako ustiaketa gastuak.....	(1)	(5)	(3)	(1)	(10)	
EMAITZAK	(0)	(1)	(1)	1	(1)	

Gure lanaren helburua Gizarte Ongizaterako Erakundeak baltzu honi 1997ko ekainaren 9an emandako dirulaguntza aztertzeraz mugatzen da; hona hemen, hitzez hitz, dirulaguntza emakida horren transkribapena:

" Gokai, SLri 13 milioi pezetako dirulaguntza ematea.- 1997. urtealdian langile ezinduak lan merkatura ekartzeko ekintzak gauzatzeko, aurkeztutako proiektuaren arabera"

1997ko abenduaren 31n, erakundeak GOFEk diruz lagundutako 13 milioien ordia kobratua zuen, gainerakoa 1998ko urtarrilean eskuratu zuela.

Aurkeztutako egitasmotik, GOFEn dirulaguntzarako gauzatutako jarduera-memoriatik eta urteko kontuetatik eskuratutako informazioa aztertu ondoren, honako hau azpimarratu behar dugu:

- Dirulaguntza eskararekin aurkeztutako egitasmoaren helburua 41 pertsona elbarri 1997rako lan merkatura txertatzea da (11 enklabe bitartez eta 30 zuzeneko kontratazio bitartez). Jardueren memoria aztertuta ondorentzen da helburuak %68an bete direla, izan ere, memoria honen arabera, 28 kontratazio lortu baitira (10 enklabe bitartez eta 18 zuzeneko kontratazio bitartez).
- Proiektuak lau programaren arabera gauzatu beharreko jardueraren deskribapena barne hartzen du. Langai eta Prestakuntza programak diruz lagunduak daudenez gero, eta egoera horren berri badu GOFEk, dirulaguntzen baterakuntza dago. GOKAlen emaitzen kontutik ez da ondorentzen, dirulaguntzen baterakuntza egon arren, osotasunean egindako kostuen kopurua gainditu dutenik, erakundearen urteko kontuek galeren kopuru txiki bat erakusten baitute.
- Bereziki aipatzekoa da GOFEk emandako dirulaguntzaren baldintzak guztiz modu zehazgabean ematen direla; izan ere, ez baitira diruz lagundutako gastuen izaera eta zenbatespena zehazten eta ezta proiektua hein batean edo osotasunean ez betetzearen ondorioak ere neurtzen. Gure ustez, komenigarria litzateke GOFEk dirulaguntzak ematerakoan zorrotzasunez horren baldintzak zehaztea. Elkarteak GOFeri aurkezten dizkion gastuen egiazko kontzeptua 500.000 pezeta inguruko inbertsioak dira. Hau hala gertatzen da dirulaguntzaren xedea garbi finkatua ez dagoelako.
- Elkarteak gastuak programa bakoitzari egozten dizkionean gutxi gora-behera egozten dizkio; honek oinarri-oinarrizko eragina du langile gastuetan, izan ere, langileen dedikazioa programa bakoitzean zuzendaritzaren gutxi gora-beherako irizpideen arabera egiten baita. Honi dagokionez, barne dokumentazioaren euskarririk ez dagoela egiaztatu da, nolabait baltzuaeren zuzendaritzak GOFEk diruz lagundutako programetara gastuak egozteko egiten dituen balioespenak justifikatuko dituenak (langilegoa, erosketak, alokairuak, e.a.); hemen garrantzia handiagoa langileen gastuek dute, elkarrearen gastuen %70 egiten baitute. Komenigarria irizten diogu zuzendaritzak izenpeturik denboraren gaineko kontrolak egitea; hartara, horietatik langileak diruz lagundutako programari eskaintzen dioten denbora errealaren ehunekoa eskuratzearren eta denbora horiek GOFEk eska ditzala gastuak justifikatzeko orduan.
- GOKAlen kontabilitatean jaso gabeko enklabe bitartez egiten diren kontratazioak dokumentu baten bitartez bideratu behar dira, GOFEn aurrean egoera hori egiaztatuko



duena. GOFEk, edonola ere, txosten idatzia gauzatu behar du, Jardueren Memorian aurkeztutako emaitzak egiaztatu direla ziurtatuko duena.

Diruz lagundutako jarduerak zenbatetsitako helburu eta adierazleekin lotuta egon behar dute, diru publikoen erabileran eraginkortasun printzipioa ezarri ahal izateko. Gainera, erakunde onuradunak aurkeztutako emaitzak GOFEk egiaztatu behar ditu.

INTRODUCCIÓN

El TVCP ha incluido en su Plan de Trabajo para 1998 diversos trabajos especiales solicitados desde Juntas Generales de Álava. Algunos de estos trabajos se enmarcan en la fiscalización de la Cuenta General del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 1997, por lo que las conclusiones obtenidas se incluyen en los correspondientes apartados del informe de fiscalización. Estos trabajos son:

- Gestión del Patrimonio del Territorio Histórico de Álava.
- Servicio de Ayuda a Domicilio (SAD) dependiente del Instituto Foral de Bienestar Social.
- Álava Agencia de Desarrollo, SA (anteriormente Prima, SA).
- Naturgolf, SA (anteriormente Tourmontana, SA).

El resto de trabajo especiales solicitados y que van a ser objeto de análisis en este informe, son los siguientes:

- I. Programas de subvención y control desarrollados por la Diputación Foral de Álava y conocidos como "vacaciones fiscales".
- II. Patronato de Gorbeia.
- III. Asociaciones de Agricultura de Montaña.
 - III.1.- Asociación de Agricultura de Montaña de Añana.
 - III.2.- Asociación de Agricultura de la Montaña Alavesa Izki.
- IV. GOKAI, SL, subvenciones concedidas por el Instituto Foral de Bienestar Social.

I. VACACIONES FISCALES

ANTECEDENTES Y ALCANCE

El 5 de julio de 1993 las Juntas Generales de Álava aprobaron la Norma Foral 18/1993, de 5 de julio, de Medidas Fiscales Urgentes de Apoyo a la Inversión e Impulso de la Actividad Económica. Entre ellas incluye las denominadas, coloquialmente, "vacaciones fiscales".

Las "vacaciones fiscales" establecen la exención por 10 años en el Impuesto sobre Sociedades a aquellas entidades que cumplieran, entre otros, los siguientes requisitos:

- Sociedades de nueva constitución.
- Que la nueva actividad no se haya ejercido anteriormente bajo otra titularidad.
- Inversión mínima de 80 millones de pesetas.
- Que se constituyan con un capital mínimo de 20 millones de pesetas.
- Creación, como mínimo, de 10 puestos de trabajo en el plazo de seis meses desde la constitución de la sociedad. Posteriormente se estableció por Circular de la Dirección de Hacienda, que el plazo se computara desde el inicio de la actividad, y no desde la constitución.
- Fecha de constitución, entre el 17 de julio de 1993 y el 31 de diciembre de 1994.
- Que no se trate de sociedades sometidas al régimen de transparencia fiscal.
- Que no hayan sido creadas como consecuencia de una operación de transformación, fusión, escisión o aportación de activos.

